



Atari Publikoen Direktorioa -ATARIKA 2024-

Atari Publikoen Direktorioak, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak egindako zentsu izaerako eragiketak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen webguneen identifikazioa, egitura, ezaugarriak eta URLak jaso ditu 2024an. Horrez gain, erakunde horiei atxikitako unibertsitez kanpoko ikastetxeei dagozkien atariak gehitu dira.

Direktorioak erakunde publikoen 1.520 webgune eta ikastetxeei lotutako 1.301 webgune ditu, 2.821 atari osatzeko.

Berrikuntza nagusi gisa, ATARIKA 2024k bilaketa-tresna aurreratua du, erabiltzaileak atari publikoak bere aldagai nagusien arabera bilatu eta iragaz ditzan.

Ohar metodologikoa: Ikerketa-esparru gisa, Eustaten 2022ko behin-behineko Administrazio Publikoen Direktorioa erabili da, 1.077 erakunde biltzen dituen, bai eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren unibertsiteaz kanpoko ikastetxeen direktorio orokorra ere (2023/2024 ikasturtea), 866 ikastetxe publiko dituen. Ez dira sartu Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Estatuko Administrazio Orokorreko erakunde publikoak.

Atari Publikoen Direktoriorako -ATARIKA 2024- sarbidea:

<https://www.euskadi.eus/directorio-de-portales-publicos-atarika-2024/web01-s2jusap/es/>

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Eusko Jaurlaritza. Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila

Tel.: 945 01 64 26 – E-mail: apjus-estad@euskadi.eus